

7/2023 FORU ARAUA, azaroaren 22koa, zabortegietan hondakinak uztearen, hondakinak erraustearen eta batera erraustearen gaineko Zergari buruzkoa (BAO Azaroaren 23koa)

HITZAURREA

Apirilaren 4an, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duen apirilaren 3ko 9/2023 Legea argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.

12/2002 Legea onartuta, Ekonomia Itunaren artikuluen artean sartu da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko azaroaren 17ko Lehenengo Akordioaren eta 2022ko abenduaren 27ko Lehenengo Akordioaren edukia. Akordio horiek Bizkaiko Batzar Nagusiek berretsi dituzte, 3/2023 Foru Arauaren bidez —otsailaren 15ekoa, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko azaroaren 17ko Lehenengo Akordia eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko abenduaren 27ko Lehenengo Akordia berresteko dena—.

Ekonomia Itunaren aldaketa horrek sartu dituen berrikuntzen artean —Ekonomia Itunaren azken aldaketa otsailaren 8ko 1/2022 Legearen bidez gauzatu zen, haren bidez aldatu baitzen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea—, nabarmentzekoa da beste hiru zerga berri itundu direla.

Itundu berri diren tributuetako bat Zabortegietan hondakinak uztearen, erraustearen eta batera erraustearen gaineko zerga da, eta, indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 34 quater artikuluan xedatutakoaren arabera, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Aurrekoa gorabehera, lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga honen karga-tasak gehitu ahal izango dituzte, lurralde erkidean unean-unean indarrean dauden muga eta baldintzen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek, halaber, autolikidazio- eta sarrera-ereduak onesteko ahalmena izango dute, zeinek gutxienez lurralde erkidean erabiltzen diren datu berak izango baitituzte; horrez gainera, likidazio-aldi bakoitzeko sarrera-epeak zehazteko ahalmena izango dute, baina ez dira izango Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Hala, bada, xedapen hau eman behar da gure ordenamenduan sartzeko zerga berri honen gaineko arauketa, non jaso behar baitira Ekonomia Itunean ezarrita dauden lotura- puntuak zerga ordainarazteko.

Ildo horretan, zergadunek kasu honetan ordainduko diote zerga Bizkaiko Foru Aldundiari: zerga honen peko hondakinak entregatzen diren zabortegia, hondakinak errausteko instalazioa edo batera errausteko instalazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik badago.

Zerga ingurumena babesteko tresna ekonomiko gisa eratzen da; hondakinak berrerabiltzea eta birziklatzea sustatzen du, eta pizgarria kentzen die hondakinen hierarkia- printzipioaren arabera hain onuragarriak ez diren beste aukera batzuei. Zeharkako zerga gisa eratzen da eta hondakinak zergapetzen ditu, haiekin gestio-eragiketak egiten diren heinean; izan ere, zabortegietan entregatzen dira ezabatuak izateko, edo, bestela, errausteko instalazioetan edo batera errausteko instalazioetan entregatzen dira ezabatuak izateko edo haien balorizazio energetikoa egiteko.

Tresna ekonomiko honen erabilera funtsezko mekanismoa da ekonomia zirkularrean aurrera egiteko eta hondakinen arloan berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestatzeko helburuak lortzeko; pizgarria kentzen die hondakinen hierarkia-printzipioaren arabera hain onuragarriak ez diren beste aukera batzuei, eta hondakinak ingurumenaren ikuspegitik egokiagoak diren aukeretara

desbideratzen laguntzen du, zeinek hondakinetan dauden materialak ekonomian berriro sartzen lagun baitezakete; birziklatzeaz ari gara, besteak beste.

Zergaren zerga-egitatea hondakinen entregatzea da, bai zabortegietan ezabatuak izateko, bai errausteko instalazioetan edo batera errausteko instalazioetan ezabatuak izateko edo haien balorizazio energetikoa egiteko —instalazio horiek direla titulartasun publikokoak edo pribatukoak—. Hala ere, zenbait salbuespen ezarri dira, hala nola: ezinbesteko kasuetan, premia larriko egoeretan edo hondamendietan agintari publikoek aginduta egiten bada entregatze hori; suntsitu beharreko ondasunak konfiskatu behar badira; suntsitzeko legezko betebeharra duten hondakinak entregatzen badira; edo udal-hondakinen erreusak ez diren tratamendu-eragiketen ondoriozko hondakinak badira entregatzen direnak, tarteko tratamendu-eragiketak ez diren balorizazio-eragiketak egiten dituzten instalazioetatik datozenak; besteak beste.

Illo horretan, zerga-oinarria zabortegietan utzi, erraustu edo batera errausturiko hondakinen pisua izango da. Kuota osoa kalkulatzeko zerga-tasa, berriz, aldatu egiten da tratamendu-instalazio motaren arabera; hain zuzen, bereizi egiten da instalazio hauen artean: hondakin ez-arriskutsuen, hondakin arriskutsuen edo hondakin geldoen zabortegiak; D10 gisa kodetutako ezabatze-eragiketak edo R01 gisa kodetutako balorizazio-eragiketak egiten dituzten udal-hondakinak errausteko instalazioak; errausteko beste instalazio batzuk; edo batera errausteko instalazioak. Horrez gainera, zerga-tasa ere aldatu egiten da instalazio horietako bakoitzerako, hondakin-motaren arabera: udal-hondakinak, udal-hondakinen erreusak, 646/2020 Errege Dekretuak (uztailaren 7koa, zeinaren bidez arautzen baita hondakinak zabortegietan utzita nola deuseztatu) xedatutakoaren arabera aurretiazko tratamendutik salbuetsita dauden hondakinak, hondakinak tratatzeko eragiketa jakin batzuen mende ez dauden hondakinak (erraustuen kasuan) eta beste hondakin-mota batzuk.

Bizkaiko Lurralde Historikoko foru erakundeen hautapenari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betez, memoria ekonomikoaren gaineko txostena erantsi zaio foru-arau honi, baita genero-eraginaren ebaluazioaren gaineko txostena ere.

Era berean, aintzat hartu dira Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak ezarritako izapideak.

1. artikulua. Izaera eta helburua.

1. Zabortegietan hondakinak uztearen, hondakinak erraustearen eta batera erraustearen gaineko zerga zeharkako tributu bat da, zabortegietan, errausteko instalazioetan edo batera errausteko instalazioetan hondakinak entregatzea zergapetzen duena, ezabatuak izateko edo haien balorizazio energetikoa egiteko.
2. Zergaren helburua da hondakinen prebentzioa, hondakinak berrerabiltzeko prestaera eta hondakinen birziklatzea sustatzea, lehentasunezko hartuta frakzio organikoa eta ingurumen-hezkuntza, hondakinak zabortegian uzteari, errausteari eta batera errausteari pizgarria kentzeko.

2. artikulua. Arau aplikagarriak.

1. Indarrean den Ekonomia Itunaren 34 quater artikuluan xedatzen denaren esparruan, zerga foru-arau honetan eta berau garatzen duten xedapenetan ezartzen denaren arabera eskatuko da.
2. Foru-arau honetan xedatutakoa gorabehera, indarrean jarraituko du Espainiako barne-ordenamenduaren parte bihurtu diren nazioarteko tratatu eta hitzarmenetan xedatutakoak.

3. artikulua. Zergaren ordainarazpena, inskripzioa eta errolda.

1. Kasu honetan ordainduko diote zergadunek zerga Bizkaiko Foru Aldundiari: zerga honen peko hondakinak entregatzen diren zabortegia, errausteko instalazioa edo batera errausteko instalazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik badago.
2. Zerga hau ordaindu behar duten zergapekoen inskripzioa eta errolda egitea Bizkaiko Foru Aldundiari egokituko zaio, baldin eta Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik badaude zerga honen peko hondakinak entregatzen diren zabortegiak, errausteko instalazioak edo batera errausteko instalazioak.

4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1. Zerga honen ondorioetarako, honela ulertuko dira kontzeptu hauek:
 - a) «Hondakinak batera errausteko instalazioa»: urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuak onetsitako Erregelamenduaren 2.15 artikuluan xedatutakoaren arabera definitutakoa; erregelamendu horrek Industriako Isurketak arautzen ditu, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu.
 - b) «Hondakinak errausteko instalazioa»: Industriako Isurketak arautu eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen 16/2002 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 2.18 artikuluan ezarritakoaren arabera definitutakoa.
 - c) «Udal-hondakinak errausteko instalazioa, D10 eragiketa gisa kodetua»: udal-hondakinak eta udal-hondakinen errefusak errausteko instalazioa, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinean ezarritako atalaseak gainditzen ez dituenak.
 - d) «Udal-hondakinak errausteko instalazioa, R01 eragiketa gisa kodetua»: udal-hondakinak eta udal-hondakinen errefusak errausteko instalazioa, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinean ezarritako atalaseak gainditzen dituenak.
 - e) «Kudeaketa-bulegoa»: Zerga Administrazioaren egitura organikoari buruzko arauen arabera Zabortegietan hondakinak uztearen, hondakinak erraustearen eta batera erraustearen gaineko zergaren gestioan eskumena duen organoa.
 - f) «Udal-hondakinen errefusak»: Hondakinak Zabortegian Utziz Ezabatzeko Modua arautzen duen uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren IV. eranskineko 1. apartatuaren d), e) eta g) letretan aipatzen diren udal-hondakinen tratamenduetatik eratorritako hondakinak. Errefusatzat jotzen dira berreskuratutako erregai solidoak eta udal-hondakinetatik eratorritako erregaiak.
 - g) «Hondakinak»: Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2.a) artikuluan zehaztutakoak, kontuan hartuta 7/2022 Legeak 3. artikuluan 2. eta 3. apartatuetan ez aplikatzeko ezartzen dituen kasuak.
 - h) «Hondakin geldoak»: Hondakinak Zabortegian Utziz Ezabatzeko Modua arautzen duen abenduaren 27ko 646/2020 Errege Dekretuaren 2.a) artikuluan zehaztutako hondakinak.
 - i) «Udal-hondakinak»: Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2.av) artikuluan zehaztutako hondakinak.
 - j) «Zabortegia»: hondakinak lurrazaleko edo lurpeko gordailuetan utziz ezabatzeko instalazioa. Kontzeptuak barne hartzen ditu Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen III. eranskineko D01, D05 eta D12 gisa kodetutako eragiketak egiteko baimendutako instalazioak.

- k) Zergaren aplikazio-lurraldea: Espainiako lurraldea.
2. Foru-arau honetan agertzen diren kontzeptuei eta terminoei dagokienez, beronetan zehaztutakoak alde batera utzita, Europar Batasuneko araudian zein Estatuko araudian xedatzen dena bete beharko da zergaren eremu objektiboaren barruan sartzen diren produktuei dagokienez.

5. artikulua. Zerga-egitatea.

Honako hau da zerga-egitatea:

- a) Hondakinen entregatzea, ezabatuak izan daitezen zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta dauden zabortegi baimenduetan, titulartasun publikoetan zein pribatukoetan.
- b) Hondakinen entregatzea, ezabatuak izan daitezen edo haien balorizazio energetikoa egin dadin zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta dauden hondakinak errausteko instalazio baimenduetan, titulartasun publikoetan zein pribatukoetan.
- c) Hondakinen entregatzea, ezabatuak izan daitezen edo haien balorizazio energetikoa egin dadin zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta dauden hondakinak batera errausteko instalazio baimenduetan, titulartasun publikoetan zein pribatukoetan.

6. artikulua. Salbuespenak.

Zergatik salbuetsita egongo dira honako hauek:

- a) Zabortegetan edo hondakinak errausteko edo batera errausteko instalazioetan hondakinak entregatzea, ezinbesteko kasuetan, premia larriko egoeretan edo hondamendietan agintari publikoek agindutakoa, edo suntsitu beharreko ondasunen konfiskazioaren kasuan.
- b) Zabortegetan edo hondakinak errausteko edo batera errausteko instalazioetan hondakinak entregatzea, baldin eta hondakinak zerga hau benetan ordaindu duten zergapeko eragiketetatik badatoz.
- c) Zabortegetan edo hondakinak errausteko edo batera errausteko instalazioetan hondakinak entregatzea, baldin eta hondakinak instalazio horietan lege ezabatzeko betebeharra badago.
- d) Administrazioek zabortegetan hondakin hauek entregatzea: 9/2005 Errege Dekretuak (urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide eta estandarrak ezartzen dituena) 7.3 artikuluan adierazitakoaren arabera in situ tratatu ezin izan diren lurzoruen deskontaminaziotik eratorritako hondakinak; baldin eta administrazioek lege interes orokorreko deklaratu diren lurzoru kutsatuak deskontaminatzeko jardueretan jarduten badute modu subsidiarioan, zuzenean edo zeharka.
- e) Zabortegetan entregatzea bertan berritze-, egokitze- edo betelan-obrak egiteko egokiak diren hondakin geldoak, eraikuntzarako direnak.
- f) Udal-hondakinen errefusak ez diren tratamendu-eragiketen ondoriozko hondakinak zabortegetan edo hondakinak errausteko edo batera errausteko instalazioetan entregatzea, hondakin horiek tarteko tratamendu-eragiketak ez diren balorizazio-eragiketak egiten dituzten instalazioetatik datozenean.

7. artikulua. Sortzapena.

Hondakinak zabortegetan uzten diren unean sortuko da zerga ordaindu beharra, edo hondakinak errausteko edo batera errausteko instalazioetan errausten diren unean edo batera errausten diren unean.

8. artikulua. Subjektu pasiboak: zergadunak eta zergadunen ordezkioak.

1. Zerga honen zergadunak pertsona fisikoak edo juridikoak dira; oro bat, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikulua 3. atalean adierazitako erakundeak, baldin eta zerga-egitatea egiten badute.
2. Subjektu pasiboak dira, zergaren zergadunaren ordezkio gisa, pertsona fisikoak edo juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikulua 3. apartatua aipatzen diren erakundeak, baldin eta zabortegeiak edo hondakinak errausteko instalazioak edo batera errausteko instalazioak gestionatzen badituzte eta zerga-egitatea egiten dutenak ez beste batzuk badira.

9. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria zabortegeietan utzitako, edo erraustutako edo batera erraustutako hondakinen pisua izango da, zeina tona metrikotan adieraziko baita hiru hamartarrekin.
2. Aurreko apartatua definitutako zerga-oinarria zerga honen zerga-egitate diren jarduerak gauzatzen dituen instalazio bakoitzeko zehaztuko da.
3. Administrazioak ezin badu zerga-oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehaztu, zeharkako zenbatespenaren bidez zehaztu ahal izango du, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 51. artikuluan ezarritakoaren arabera. Zerga-oinarriaren zeharkako zenbatespena egiteko, Administrazioak kontuan hartu ahal izango du utzitako, erraustutako edo batera erraustutako hondakinen pisuaren adierazgarri izan daitekeen edozein datu, inguruabar edo aurrekari, eta, bereziki, hondakin-bolumenaren jasotze topografikoa eta utzitako, erraustutako edo batera erraustutako hondakinaren karakterizazioa, dentsitatea eta osaera zehaztuta.

10. artikulua. Kuota osoa.

Kuota osoa zerga-oinarriari dagokion zerga-tasa aplikatuz kalkulatzen da; zehazki:

- a) Hondakin ez-arriskutsuen zabortegeietan utzitako hondakinen kasuan:
 1. Udaltaldeak badira: 40 euro tona metrikoko.
 2. Udaltaldearen errefusak badira: 30 euro tona metrikoko.
 3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazitakoak ez beste hondakin batzuk badira eta uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritako moduan aurretiazko tratamendutik salbuetsiak izan badira:
 1. Oro har: 15 euro tona metrikoko.
 2. Hondakin geldoen osagaia ehuneko 75etik gorakoa duten hondakinen kasuan: hondakin geldoaren zatia, 3 euro tonako; gainerakoa 15 euro tonako.
 4. Bestelako hondakinak badira:
 1. Oro har: 20 euro tona metrikoko.
 2. Hondakin geldoen osagaia ehuneko 75etik gorakoa duten hondakinen kasuan: hondakin geldoaren zatia, 1,5 euro tona bakoitzeko; gainerakoa 20 euro tona bakoitzeko.
- b) Hondakin arriskutsuen zabortegeietan utzitako hondakinen kasuan:

1. Uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritako moduan aurretiatzko tratamendutik salbuetsiak izan diren hondakinak badira: 8 euro tona metrikoko.
 2. Bestelako hondakinak badira: 5 euro tona metrikoko.
- c) Hondakin geldoen zabortegietan utzitako hondakinen kasuan:
1. Uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritako moduan aurretiatzko tratamendutik salbuetsiak izan diren hondakinak badira: 3 euro tona metrikoko.
 2. Bestelako hondakinak badira: 1,5 euro tona metrikoko.
- d) Udal-hondakinak errausteko instalazioen kasuan, D10 eragiketa gisa kodetutako ezabatze-eragiketak egiten badituzte:
1. Udal-hondakinak badira: 20 euro tona metrikoko.
 2. Udal-hondakinen errefusak badira: 15 euro tona metrikoko.
 3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan zehaztutako hondakinak ez beste batzuk badira: 7 euro tona metrikoko.
- e) Udal-hondakinak errausteko instalazioen kasuan, R01 eragiketa gisa kodetutako balorizazio-eragiketak egiten badituzte:
1. Udal-hondakinak badira: 15 euro tona metrikoko.
 2. Udal-hondakinen errefusak badira: 10 euro tona metrikoko.
 3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan zehaztutako hondakinak ez beste batzuk badira: 4 euro tona metrikoko.
- f) Hondakinak errausteko beste instalazio batzuen kasuan:
1. Udal-hondakinak badira: 20 euro tona metrikoko.
 2. Udal-hondakinen errefusak badira: 15 euro tona metrikoko.
 3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan zehaztutakoak ez beste hondakin batzuk badira eta ez bazaie egin Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eta III. eranskinetan R02, R03, R04, R05, R06, R07, R08, R09, R12, D08, D09, D13 eta D14 gisa kodetutako tratamendu-eragiketarik: 5 euro tona metrikoko.
 4. Bestelako hondakinak badira: 3 euro tona metrikoko.
- g) Hondakinak batera errausteko instalazioetan batera errausten diren hondakinen kasuan: 0 euro tona metrikoko.

11. artikulua. Zerga jasanaraztea.

1. Zergadunen ordezkoei sortu diren kuoten zenbatekoa jasanarazi beharko diete zergaren zergadunei, zeinak kuotak jasatera behartuta egongo baitira. Ezin izango da eskatu kuotak jasanarazteko, baldin eta Administrazioak likidazioak egiten baditu edo zergadunak berak aurkeztu behar badu dagokion autolikidazioa.

2. Sortutako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik bereizita.

12. artikulua. Zergaren gestioa.

1. Hiru hilabeterik behin, zergadunaren ordezkio diren edo, hala badagokio, zergadun diren subjektu pasiboek autolikidazio bat aurkeztu beharko dute, hiruhileko natural bakoitzean sortutako kuotak jasotzen dituen. Oro bat, zerga-zorra sartu behar izango dute Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-aginduz ezarritako moduan, tokian eta epeetan.
2. Erregelamendu bidez ezarritako moduan, hala badagokio, autolikidazioak aurreko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar dituztenak behartuta egongo dira, jarduerari ekin aurretik, Zabortegietan hondakinak uztearen, hondakinak erraustearen eta batera erraustearen gaineko zergaren lurralde-erregistroan inskribatzera.

Ogasun eta Finantza Saileko titularraren foru-aginduz arautuko dira zerga honen peko obligaziodunen errolda eta obligaziodun horiek lurralde-erregistroan inskribatzeko prozedura.

3. Erregelamenduz ezartzen den moduan, zabortegiak edo hondakinak errausteko edo batera errausteko instalazioak gestionatzen dituzten subjektu pasiboek utzitako, erraustutako edo batera erraustutako hondakinen erregistro datatu bat egin beharko dute. Betebehar hori betetzat joko da Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan aipatzen den artxibo kronologikoa egiten bada.
4. 10. artikuluen d) eta e) letretako zerga-tasak aplikatzeko, hondakinak errausteko instalazioen gestoreek eduki beharko dute autonomia-erkidegoak egindako jakinarazpena, energia-efizientziaren balioa eta eragiketa-sailkapena (D10 edo R01) jasotzen dituen, Industriako isurketak arautzen dituen eta 16/2002 Legea (uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuena) garatzen duen Erregelamenduaren 40.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.
5. Zergadunen ordezkioek egiaztatu behar dute utzitako, erraustutako edo batera erraustuko hondakinen pisua, pisatze-sistema homologatuen bidez, hala ezartzen baitute uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 4.1.b) 5 artikulua eta Industriako isurketak arautzen dituen eta 16/2002 Legea (uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuena) garatzen duen Erregelamenduaren 30.2 artikulua.

Horretarako, zergadunen ordezkioek behar bezala ziurtatutako pisatze-mekanismoak instalatu eta mantendu behar dituzte.

13. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

1. Artikulu honetan ezarritako xedapen berezia gorabehera, zerga honekin lotutako tributuarloko arau-haustea kalifikatzeko eta zehapenak ezartzeko, 2/2005 Foru Araua aplikatuko da (martxoaren 10ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zergei buruzkoa), bai eta garapenerako gainerako arau guztiak ere.
2. Tributuarloko arau-haustea izango da Zabortegietan hondakinak uztearen, hondakinak erraustearen eta batera erraustearen gaineko zergaren lurralde-erregistroan ez inskribatzea.

Zehapena diruzko isun finko bat izango da, 1.000 eurokoa.

Kasu honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 193. artikuluen xedatutakoa aplikatuko da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo Xedapen Iragakorra. Hondakin jakin batzuei 2023an eta 2024an aplikatu beharreko zerga-tasak.

Foru-arau honen 10. artikuluko a) letraren 4. zenbakian jasotakoa gorabehera, zenbaki horretan ezarritako 20 euroko zerga-tasa tona metrikoko, 10 eurokoa izango da 2023. urterako, eta 15 eurokoa, 2024. urterako.

Bigarren Xedapen Iragakorra. Industria-hondakin jakin batzuei aplikatu beharreko zergaren araubidea.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako hiru urteetan, Zabortegetan hondakinak uztearen, hondakinak erraustearen eta batera erraustearen gaineko zergatik salbuetsita egongo da industria-hondakin ez-arriskutsuen entregatzea, baldin eta entregatze hori hasierako ekoizleak egiten badu bere instalazioetan kokatutako zabortegetan, haiek bere titulartasunekoak eta bere erabilera eksklusiborako direnean.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehen. Arauak emateko gaikuntza.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak foru-arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Azken Xedapenetako Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru-arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, Ekonomia Itunaren hamaikagarren xedapen iragakorrean xedatutakoa gorabehera.